

ERRETERIAKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA



**Plan Orokorraren Bulegoa**  
**Oficina del Plan General**

---

## **XII. EKIPAMENDU KOMUNITARIOA**

---



## **XII.01.** **ADMINISTRATIBO PUBLIKOA**

---

Udal-administrazioaren jarduerak udaletxean burutzen dira. Udaletxea Herriko Plazan dago eta duela gutxi handitu dute. Era berean, "Kapitan enea" deituriko eraikina ere erabiltzen da; bertan dago Kultura, Hezkuntza eta Gazteria Saila. Horrez gain, Gizarte Ongizate Saileko bulegoak Santa Klara kaleko 18 zenbakian daude, beheko solairuan.

Udal alondegia eta udaltzaingoa G. Echeverriaren garai bateko industri instalazioetan daude; dena den, aurreikusita dago horiek Masti/Loidi Sektorera aldatzea. Alondegia, gainera, bulegoak dauzka Koldo Mitxelena plazan.

Ertzaintza-etxea Serapio Mugica plazan dago.

Foru Ogasunak lokala dauka Magdalena kaleko 3 zenbakian.

Postetxea Xenpelar kaleko 5 zenbakian zegoen, baina, oraindik orain, Andoni Korta kalera aldatu dute.



---

## XII.02. AZOKA

---

Udal-alondegia azokako eraikinaren erdisotoan zegoen, baina lekuz aldatu zuten.

Udalaren aginduz, 1999ko abenduan, "Errenteriako Azokako Eraikinaren Barrualdea Berritzeko Proiektua" idatzi zen. Proiektuaren helburua zen dendak lekuz aldatzea eta eraikinaren beheko solairuan jartzea. Lehenengo solairuan lekua gorde zen hozkailuak jartzeko. Gainera, aurreikusi zen karga-jasogailua jartzea eta estalkia berritzea. Kontratuaren aurrekontua 56.366.357 pezetakoa zen (BEZa barne). Obrak dagoeneko bukatu dira.

Era berean, garai bateko udal-alondegian garajea jartzeko proiektua idatzi da. Eraikina garajea izango da, batik bat; bertan, 41 ibilgailu gordeko dira, txandaka. Horrez gain, zona bat egongo da emakidadun enpresaren eta udalaren bulegoak, biltegia eta komunak jartzeko.

Azoka zerbitzua 14/21 Eura pasako da, garai bateko Niessen fabrikara (AASSen 14. aldaketa). Eta, horregatik, orain azoka moduan erabiltzen den eraikina dagoen partzelaz arduratu behar gara, noski.

Hirigintza-arauetan sartu zen konponbidea Aurrerapenean Alternatiba 2 deitu zitzaiona da. Konponbide hori da eraikina dagoen lekuan uztea eta erabilera berri eta desberdinetarako egokitzea. Izan ere, eraikina, bere tipologia eta egituragatik, erabil daiteke Ekipamendu Komunitarioaren Sistema Orokorreko jardueretarako.

Instalazioak egokitzeko, bi aukera daude: batetik, Kultur Hornidura Programa bat egitea, erabilpen posibleak zehazteko (Udal-liburutegia, esaterako); bestetik, ahalbidetzea jarduera desberdinak eta denboraldi desberdinetakoak jartzea (esaterako, artisautza azoka, erakusketa-aretoak, gabonetako haurrentzako jolaslekua, e.a.). Horrela, hirigunean, 14/21 EUn aurreikusitako instalazioez gain, ekipamenduak egongo dira batean eta bestean. Eta hori garrantzitsua da hiria egoki erabiltzeko, jarduerak ez baitaude pilatuta.

Hirigintzaren aldetik, eraikina ingurura egokitzen da; eraikinak ez die eragiten aldameneko eraikinei. Gainera, konponbide horrek errespetatu egiten ditu indarrean dauden AASSen xedapenak.

Are gehiago, ekonomia-kudeaketari dagokionez, gaur egun martxan dauden jarduerak errentagarri izatea lortzen da, eraikinaren egitura-elementuak eta estalkia mantendu egiten direlako.



### XII.03. IRAKASKUNTZA-EKIPAMENDUA

Errenterian hamahiru ikastetxek ematen dute irakaskuntza arautua, Hezkuntza eta Gazteria Saileko informazioaren arabera. Ikastetxe horiek pribatuak zein publikoak dira. Ondorengo taulan azaltzen dira ikastetxe bakoitzaren helbidea, izena eta plazak.

Ikastetxea	Helbidea	Plazak	lidoak	Oharrak
Aldakoenea Eskolaurrea	Aldakonea k.			Beraun-Berriren mendeko dago
Beraun Berri (1)	Beraun k.		H-L-B	Eraikina partituta dago
Cristóbal Gamón	Sorgintxulo 6	506	H-L-B	Eskolaurre independentea
Hijas de la Cruz Ikastetxea (*)	Agustindarrak	230	H-L-B	
Orereta Ikastola (*) (2)	Zamalbide	759	H-L-B	2 eraikin
Koldo Mitxelena-Biteri (3)	Fdez. Landa		H-L-B	Eskolaurrea Olibeten
Langaitz Ikastola (1)	San Markoserako bidea	506	H-L-B	Eraikina partituta dago
Pío Baroja	Urdaburu k.	138	H-L	
Sagrado Corazón-Telleri Ikastetxea (*)	Juan de Olazábal	414	L-B	
Koldo Mitxelena Institutua (3)	Galtzaraborda 43	506		
Don Bosco Lanbide Ikastetxea	Kaputxinoak	520		Lanbide Heziketa
Sarita Ikastetxea (*)	Alfontso XI, 15			Lanbide Heziketa
Zamalbide LH Institutua (euskara)	Zamalbide	100		Lanbide Heziketa

(\*) Ikastetxe pribatuak

(1) Eraikin berean daude

(2) Beste eraikin bat dute Koldo Mitxelena enparantzan

(3) Haur Eskola Olibeten dauka

( H ) Haur Hezkuntza

( L ) Lehen Hezkuntza

( B ) Bigarren Hezkuntza

Ikastetxe pribatu eta publikoek, bien artean, 3.679 plaza eskaintzen dituzte. Eta plazak dira haur hezkuntzakoak, lehen hezkuntzakoak, bigarren hezkuntzakoak eta lanbide heziketakoak (620 plaza). Plazak zenbateraino betetzen diren garrantzitsua da; txikitxoenen hezkuntza-ikastetxeak erabat beteta daude. Halaber, hartzaindegia duten ikastetxeek (Orereta eta San José-Hijas de la Cruz) hartzaindegia bete-beteak dituzte.

Egoera hori aurreko urteetako egoeraren kontrakoa da; duela urte batzuk hainbat ikastetxe itxi egin ziren, hala nola, Gaztaño, Beraun, e.a. Bestalde, Sarita Ikastetxea Zamalbide LH Institutuari lotuta dago; Institutuak ematen dio ofizialtasuna Ikastetxeko irakaskuntzari.

Ikastetxe gehiago ere badaude: Alabergako Lanbide Hastapenerako Ikastetxea (LHI), eskola utzi duten gazteei zuzendua; Begiraleak Hezteko Ikastetxea (TRAKETS), titulazio ofizialekoa; Markolako Eskola-lantegia (Gizarte Zerbitzuen mendekoa); eta Markola HEH (helduentzat). Horiezaz aparte, hainbat eskola pribatu daude.



---

## **XII.04. KULTUR ETA KIROL EKIPAMENDUA**

---

### **XII.04.01. Kultur erakundeak**

Udalerrian eskura dago Errenteriako Kultur Gunea, lehengo Alfontso XI kalean. Kultur gunea birgaitzen urte batzuk daramatzate, fase hauetan antolatuta:

- I Fasea: Errenteriako Kultur Gunea (auditorioa, hainbat jarduera, entsegu-aretoak, dantza-aretoak eta hainbat lantegi).
- II Fasea: Kontserbatorioa (kontserbatorio bertako jarduerak).
- III Fasea: Eresbil. Euskal Musikagileen Artxiboa (liburutegia, partiturak, Musika Ikasketa eta Dokumentazio Zentroa).

Oarso Institutuan (Pablo Iglesias kalea) hainbat zerbitzu daude; hala nola, Oretako haurtzaindegia, Andre Mari abesbatza (1. solairua) eta ludoteka (2. solairua).

Arte Plastikoen "Xenpelar" udal-lantegiak, Kultur Gunearekin batera, Arte Ederren eta Zaharberritzearen gaineko jarduerak programatzen eta garatzen ditu; gainera, erakusketa-aretoa dauka.

"Xenpelar" etxeak (Magdalena kalea) behe-solairuan Erakusketa Aretoa dauka; lehenengo solairuan, Hitzaldi Aretoa; eta azken solairuan, berriz, Haur Liburutegia.

Hitzaldi-areto bat dago (Xenpelar kalea); eta San Markoseko gotorlekua, ostalaritza-jardueraz eta aterpetxeaz gain, musika-emanaldiak izan dira.

Gainera, bi galeria edo arte-areto pribatu daude: Gaspar Aretoa (Santxo Enea kalea) eta Mikelazulo Aretoa (Beheko kalea).

Fanderian errota zaharberritu dute.

Azpimarratu behar dira liburutegia eta artxiboak. Udal-liburutegian beheko solairuaz gain, hiru pisu daude; liburutegia Magdalena kalean dago, hirigune historikoan. Liburutegiak haur-sekzioa eta gazte-sekzioa ditu. Gainera, harpidedun asko ditu (6.754; horietatik 5.495 helduak, eta 1.259 haurrak eta gazteak). Instalazioak, ordea, ez dira egokiak, eta kultur guneetako eskaintza berriei ezin zaie erantzun.

Artxiboa, berriz, bi lekutan dago banatuta, udaletxeko etxabeen eta Kapitan Enea eraikinean.



---

#### XII.04.02. Kirol-instalazioak

Kirol-instalazioei dagokienez, ezer baino lehen, kontuan hartu behar dugu instalazio horietara heltzea oso erraza dela; izan ere, biztanleria bilduta dago eta distantziak oso motzak dira. Dena den, "zaindu gabeko" zonak daude.

Udalerrian belar artifizialeko bi futbol-zelai daude, Beraunen eta Fanderian. Fanderian, gainera, futbol-7 zelaia dago. Instalazio horiek edonoiz erabil daitezke, argi artifiziala dutelako.

Beraungoa eta Fanderiakoa kirol-guneak dira. Beraunen, esaterako, futbol-zelaiaren ondoan sei kaleko atletismo-pista eta estalitako frontoia daude. Frontoia handia denez, taldeko kirolak egin daitezke bertan (eskubaloia, saskibaloia). Frontisak, atzeko partean, rokodromoa dauka.

Bi skate-pista (bat orain dela gutxi birmoldatua) eta kirol-gune irekia daude. Eta gune horretan daude estalkirik gabeko igerilekuak, saskibaloia eta eskubaloirako pistak kanpo librean, futbol-7 zelaia eta berdegune bat; berdegunea oso gutxi erabiltzen den kirol-gunean dago.

Pontika auzoan estalkirik gabeko frontoia dago; frontoiaren azalera bide ematen du beste kirol batzuk egiteko. Frontoia ixtea aztertzen ari dira, hobeto aprobetxatzeko.

Udalerraren erdi-erdian estalitako frontoia dago; frontoi hori erabilpen anitzeko espaziotzat edo kiroldegitzat har daiteke. Dena den, frontoia botatzea aurreikusita dago.

Ondartxon Hibaika Arraun Elkarteak dago. Elkartearen jarduerak udal-hiltegi zaharretan dauden instalazioetan egiten dira. Ondartxoko zonan espazio zabal bat dago hainbat jarduera (aisialdia, kirola, e.a.) egiteko prestatzeko modukoa. Duela urte batzuk pista amerikarra jarri zuten, baina ez da ia batere erabili.

Galtzarabordan udal-kiroldegia dago. Kiroldegiak, instalazio propioez gain, erabilpen-anitzeko pista estaliak dauzka, eskubaloian eta saskibaloian aritzeko; igerilekua ere badago, estalia noski.

Estalkirik gabeko pistak Gabierrotan eta Alabergan daude. Alabergako Lanbide Hastapeneko Eskolaren ondoan (udal-lokala) kirola (futbola) egiteko pista dago.

Udalerriko beste kirol-gune handia Fanderian dago. Zelai berria proiektu handi baten zati da. Proiektuan sartuta daude, baita ere, estalitako frontoia eta igerilekuak, kirol-anitzeko pista, etab.



Azken honen konfigurazioak aukera emango du udalerriko kirol-guneak antolatzeke Fanderia, Beraun eta Galtzaraborda inguruan. Beharbada, zentzuzkoagoa litzateke kirol-triangelu bat osatzea, erpin moduan hartuta aipatutako areak (Fanderia, Beraun-Galtzaraborda eta Iztietta). Izan ere, erdigunea, estalitako frontoia kendu ondoren, Ondartxoztietta area kirol-gune moduan birgaitzeko aukeraren baitan geratzen da. Horri gehitu behar diogu aurreikusita dagoela balio anitzeko espazioa jartzea 14/21 EUn (garai bateko Niessen fabrika).

#### XII.04.03. Aisialdi eta gazte elkarteak

Atal honetan, ezer baino lehen, kontuan hartu behar dugu udalerrian elkarte asko daudela: gazteenak, hirugarren adinekoenak, emakumeen taldeenak, etab. Eta hori, kontuan hartu gabe aisialdi, kirol, gastronomia eta abarreko elkarteak. Azken elkarte horiek lokal pribatuetan egiten dituzte beren jarduerak eta estatutu propioak dituzte; horrez gain, "udalaren babesetik" kanpo daude, neurri batean. Horregatik guztiagatik, elkarteei buruzko informazioa elkarteak kokatuta dagoen udal-sailaren arabera banatuta dago. Eta azterketa honetarako, interesgarriak dira gazteen, emakumeen, bizilagunen eta hirugarren adinekoen elkarteak, alde batetik, eta udal-lokalak behar dituzten jarduera taldeak, bestetik. (Hirugarren adinekoen, emakumeen eta bizilagunen elkarteak Gizarte Zerbitzuen Sailaren mende daude).

Hezkuntza eta Gazteria Sailak, guztira, udal-lokaletan aritzen diren hamabi elkarte dauzka erroldan sartuta. Dena den, gazteentzako bost lokal bakarrik daude; eta Gaztañoko eskolaurreko eraikina gazte-elkarte batek Gaztetxe moduan kudeatzen du. Horrenbestez, ondo bereiztu behar dira gazteentzako prestatutako lokalak eta, nolabait esateko, sozietatearen helbidea udal-lokaletan duten elkarteak.

Gazteentzako lokalak hauek dira:

IZENA	HELBIDEA
Aldats gazteen lokala	Beraun 27 (Beraun-Berri)
Gabi Gazteak	Gabierrota pasealekua (Gabierrota)
Jostari Gazteen lokala	J. M <sup>a</sup> Usandizaga (atzealdea) Beraun
Kapu gazteak	Basanoaga 8. (Kaputxinoetan)
Zurrumbilo gazteen lokala	Elias Salaberria 8 (Agustindarrak)

Elizari lotutako elkarteak ere kontatzen dira; hala nola, Olaberri (Iztietta auzoko San Jose langilearen eliza) eta Gaztedi (Fatimako Andre Mariaren eliza (Martin Etxeberria kalea))

Udalak gazteentzako aterpetxea ere badauka, Zamalbiden (Belabaratz aterpetxea). Aterpetxera beste lurraldeetako gazte asko joaten dira, hainbat arrazoirengatik (senidetzeak, gazteentzako jarduerak...).



## XII.05.

### ZERBITZU SANITARIO ETA ASISTENTZIALA ETA BESTELAKO ZERBITZUAK

Errenteriako Udaleko Gizarte Zerbitzu Sailaren ardura dira hirugarren adina, haurtzaindegiak eta hainbat eratako elkarteak, gazte-elkarteak izan ezik. Beraz, aurrez esan bezala, elkarte haiek dira erretiratuenak, emakumeenak eta bizilagunenak.

Udalerrian zaharren egoitza bat dago; horretaz aparte daude Foru Aldundiarekin hitzartutako akordioak. Zaharren egoitza hori Gabierrota pasealekuan dago eta 1988koa da. Ireki zenean, 110 plaza zeuden eta, gaur egun, 128 daude; izan ere, duela urte batzuk plaza gehiago jarri ziren, kudeaketan titulartasuna aldatu zelako. Zaharren egoitzan dago, baita ere, Eguneko Zentroa, mugitzeko zailtasunak, zailtasun neurologikoak, e.a. dituzten pertsonentzat.

Udalak kudeatutako zentroez aparte, beste bat dago, "Gerontologia Zentroa" (San Markos kalea, z/g); zentroak titulartasun pribatua dauka (120 plaza), baina hitzarmenak dauka Udalarekin; horregatik, zentro berezitetan plazak igo egin dira. Hala ere, plaza gutxi dira, denak hartuta baitaude. Horretaz konturatzeko, aipatu besterik ez dago laurogeiko hamarkadaren bukaeran 65 urtez goiko zenbat pertsona zeuden, 4.300, eta, gaur egun, zenbat dauden, 6.100 baino gehiago. Hortaz, hamar urtean bakarrik %40 igo da. Udalak, halaber, EAZ (Etkez-etxeko Zerbitzu Asistentziala) dauka; zerbitzu hori jende askok erabiltzen du, eta itxaronzerrenda ere badago.

Errenterian Osakidetzako hiru anbulatorio daude, Iztieta, Beraunen eta Lartzabalen. Beilatokia ere badago, Zentolenen.

Orobat, hiru haurtzaindegi daude; horietako bat Udalarena da (58 plaza). Baina, ordutegia dela eta, udal-haurtzaindegiak ez dauka arrakasta handirik; aldiz, haurtzaindegi pribatuetan, ordutegia zabalagoa denez, jende asko ibiltzen da. Udal-haurtzaindegiaren helbidea hau da Alaberga z/g; haurtzaindegi pribatuak, berriz, aipatutako ikastetxeetan daude.

Pasadizokoen zentrorik ez dago; baina, harrera-pisuak daude, larrialdietarako. Elkarte hauek daude: hirugarren adinekoei laguntzeko elkarteak, minusbaliatuei laguntzeko elkarteak, alkoholiko anonimoenak, psikopedagogia arlokoak, ludopatiari kontra egiten laguntzeko elkarteak, e.a.

Horrez gain, Errenterian era askotako elkarteak daude: erretiratuenak, emakumeenak, feministenak, e.a. Zehatz-mehatz, erretiratuen zortzi elkarte daude, Galtzarabordan, Alabergan, Kaputxinoetan, Gabierrotan, Pontikan, Agustindarretan eta Beraunen. Erdigunean (hor auzo hauek sartzen dira: Olibet, Iztieta, hirigune historikoa, Morrongilleta, Herrigunea), ez dago erretiratuen elkarerik.

Era berean, emakumeen eta bizilagunen hamaika elkarte daude, udal-lokaletan. Eskola-lantegia ere badago, Sailaren mende.





---

**XII.06.**  
**HILERRIA**

---

Udalak, hilerriari dagokionez, administrazio-kontzesioa dauka eginda Zentolen Berri SA-rekin, 50 urterako. Kontzesioa 1993. urtearen amaieran egin zen.

Aipatutako enpresak errausketa-zerbitzua eskaintzen du udalerrian, eskualdean, Lurralde Historikoan, Nafarroako hainbat zonatan eta Estatuko beste probintzietan; baita Frantziako zenbait lekutan ere.

Zerbitzu horiek gaur egungo eskaria betetzen dute; baita epe motz, ertain eta luzerako eskaria ere. Horregatik, beste udalerrietan gertatu ez bezala, ez da beharrezkoa hilerria handitzea. Errausketa-labea handitu beharrik ere ez dago; izan ere, labea edukiera handitzeko moduan dimentsionatuta dago.

Aurreikusitakoaren arabera, indarrean dauden AASSetan proposatutako konponbidea da egokia. Hala, lur emateko bi espazioak banatzen dituen errepidea kanposantuaren ardatz integratzaile bihurtzen da. Horretarako, dagoen errepidea ordezkatu behar da saihesbidetzat har dezakegun bideagatik.